Bilbo Handiko metropoli inguruak jatorria Arabako Lautadan eta Donostialdean duten 16.924 joan-etorri ekartzen ditu. Arabako Lautadak joan-etorriak sortzeko gaitasun gehiago erakusten du, % 70a kontzentratzen baitu, Donostialdetik datorren % 30arekin alderatuz. Kotxea baldin bada ere modurik zabalduarena, azpimarratzekoa da Donostialdeatik datozenen artean modu anitzek duten garrantzia.

Taula 44. Bilbo Handiko joan-etorri metropolitarrak

Helmuga Bilbo Handia	Donostialdea		Arabako Lautada	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Autoa	3.760	74,0	9.372	79,1
Errepidezko garraio kolektiboa (1)	327	6,4	1.806	15,3
Multimodala	996	19,6	663	5,6
Guztira	5.083	100	11.841	100

(1) Errepidezko garraio kolektiboak bere barnean jasotzen ditu lineak kanpoko autobusetan eginiko garraioak, eta baita ere autobus urbanoetan eta herrien artekoetan.

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAeko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Taula 45. Bilbok kanpoarekin soilik eragindako edo erakarritako bidaien banaketa (barruko mugimendurik gabe) garraio moduen arabera

Garraiobide		Sortutako joan-etorriak (1)	Ekarritako joan-etorriak (2)	Guztira	%
Motorizatu gabea	Oinez	4.145	3.263	7.408	1,4
	Bizikleta	1.445	1.098	2.543	0,5
Guztira motorizatu gabeak		5.590	4.361	9.951	1,9
Motorizaturia	Autoa	150.282	147.361	297.643	55,6
	Motozikleta	3.146	3.146	6.292	1,2
	Errepidezko garraio kolektiboa (3)	25.670	27.633	53.304	10,0
	Metroa	60.106	63.829	123.935	23,1
	Trenbidea	12.047	12.561	24.608	4,6
Guztira motorizaturiak		251.251	254.530	505.782	94
Multimodala		9.500	10.328	19.829	3,7
Guztira		266.342	269.220	535.562	100


(1) Sortutako desplazamenduak: Vitoria-Gasteiz sorburu eta kanpoan helburua duten joan-etorriak.

(2) Ekarritako desplazamenduak: Sorburua kanpoan eta helburua Vitoria-Gasteizen duten joan-etorriak.

(3) Errepidezko garraio kolektiboak bere barnean jasotzen ditu lineak kanpoko autobusetan eginiko garraioak, eta baita ere autobus urbanoetan eta herrien artekoetan.

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAeko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Irudia 49. Bilbo barneko joan-etorrien sailkapena garraio-moduaren arabera




Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

2.7.3 Gipuzkoa

Gipuzkoan egunero guztira 2.126.953 barne joan-etorri burutzen dira probintziaren baitan, non EAEko fluxuaren % 33,1 ordezkatzeko duen.

Probintziaren baitan burutzen diren joan-etorrien % 45,7 mugikortasun okupazionalak sortutako beharreatatik da. Joan-etorrien sorreran berebiziko garrantzia eskuratzen dute lan arrazoiak (% 31,4), jarraian aisiak (% 28), kudeaketa pertsonal eta familiarrak eta ikasketek % 17,1 eta % 14,3ko portzentajeekin, hurrenez hurren.


Irudia 50. Gipuzkoako barne joan-etorrien banaketa arrazoiaren arabera



Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Lurraldearen baitan burutzen diren barne joan-etorrien gehiengoa oinez egiten da (% 46,4). Halaber, Gipuzkoa da % 36,7ko portzentajea izanik, aipatutako joan-etorriak burutzeko autoaren barneratze kuota altuena duen Lurralde Historikoa. Errepidezko garraio kolektiboak presentzia pixka bat lortzen du, fluxuen % 9,1 bilduz.

Irudia 51. Gipuzkoako barne joan-etorrien banaketa garraio modalaren arabera



Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Gipuzkoa modu homogeneoan banatzen diren herri ertainen sareaz dago egituratuta, hiriburuak oreka hau kontzentratu eta puskatu gabe. Lurraldearen antolamendu hau Donostiak probintzian zehar fluxuak erakartzeko eta sortzeko duen gaitasunean islatzen da. Ondorioz hiriburua da barne joan-etorrien % 25,9en protagonista. Donostialdea eskualde guztiko barne bidaien portzentajea % 43,5an kokatzen da, Bilbo Handian (%76,4) eta Arabako Lautadan (% 84,5) erregistratutako mailatik oso baxu aurkituz. Eskualde guztietan barne joan-etorrien sorkuntzak, probintziaz sortutako edota erakarrirako joan-etorriek baino garrantzi handiagoa dute.

Taula 46. Gipuzkoako barne joan-etorriak eskualdeka sailkatuta

JATORRIA	HELMUGA									
	Bidasoa Beherea	Deba Beherea	Deba Garaia	Donostialdea	Donostia - San Sebastián	Goierri	Tolosalde	Urola-Kostaldea	Zehaztu gabe	Guztira
Bidasoa Beherea	192.428	982	0	12.886	13.923	1.113	809	800	0	222.940
Deba Beherea	982	126.972	5.246	230	4.337	1.444	0	3.623	0	142.834
Deba Garaia	0	4.718	171.869	684	1.021	2.081	773	3.354	0	184.499
Donostialdea	13.005	430	484	262.282	60.575	4.509	10.094	3.941	0	355.319
Donostia - San Sebastián	14.874	4.313	1.483	51.783	551.314	5.124	9.299	9.548	0	647.739
Goierri	1.113	1.444	2.122	4.558	4.610	188.604	6.472	951	0	209.875
Tolosalde	809	283	853	9.287	9.904	7.618	119.370	1.676	0	149.801
Urola-Kostaldea	800	3.623	3.601	3.672	10.200	1.207	1.457	189.007	189	213.756
Zehaztu gabe	0	0	0	0	0	0	0	189	0	189
Guztira	224.010	142.764	185.659	345.383	655.885	211.700	148.274	213.089	189	2.126.953

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Taula 47. Gipuzkoako barne joan-etorriak eskualdeka sailkatuta. (%).

JATORRIA	HELMUGA									
	Bidasoa Beherea	Deba Beherea	Deba Garaia	Donostialdea	Donostia - San Sebastián	Goierri	Tolosaldea	Urola-Kostaldea	Zehaztu gabe	Guztira
Bidasoa Beherea	9,0	0,0	0,0	0,6	0,7	0,1	0,0	0,0	0,0	10,5
Deba Beherea	0,0	6,0	0,2	0,0	0,2	0,1	0,0	0,2	0,0	6,7
Deba Garaia	0,0	0,2	8,1	0,0	0,0	0,1	0,0	0,2	0,0	8,7
Donostialdea	0,6	0,0	0,0	12,3	2,8	0,2	0,5	0,2	0,0	16,7
Donostia - San Sebastián	0,7	0,2	0,1	2,4	25,9	0,2	0,4	0,4	0,0	30,5
Goierri	0,1	0,1	0,1	0,2	0,2	8,9	0,3	0,0	0,0	9,9
Tolosaldea	0,0	0,0	0,0	0,4	0,5	0,4	5,6	0,1	0,0	7,0
Urola-Kostaldea	0,0	0,2	0,2	0,2	0,5	0,1	0,1	8,9	0,0	10,0
Zehaztu gabe	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	10,5	6,7	8,7	16,2	30,8	10,0	7,0	10,0	0,0	100

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Donostialdeako eremu metropolitarra, hiru eremu metropolitarratik besteekin alderatuz fluxuak sortzeko gaitasun gutxienean duena da. Donostialdea, helmuga gisa Bilbo Handia eta Arabako Lautadak dituzten 7.607 joan-etorrien abiapuntua da. Espezialiki nabarmentzen dena zera da, bizkaitar eremuan sortutako fluxuak arabar eremuan sortzen direnen aurrean (% 67,7 versus % 32,3). Aipatutako joan-etorrien gehienak, autoz egiten dira eta bien bitartean, errepidezko garraio kolektiboak pisu txikia eskuratzen du.

Taula 48. Donostialdeako joan-etorri metropolitarrak

Helmuga Donostialdea	Bilbo Handia		Arabako Lautada	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Autoa	4.136	80,4	2.003	81,4
Errepidezko garraio kolektiboa (1)	112	2,2	220	9,0
Trenbidea	246	4,8	0	0,0
Multimodala	653	12,7	237	9,6
Guztira	5.147	100	2.460	100

(1) Errepidezko garraio kolektiboak bere barnean jasotzen ditu lineak kanpoko autobusetan eginiko garraioak, eta baita ere autobus urbanoetan eta herrien artekoetan.

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.


Taula 49. Donostia-San Sebastianek kanpoarekin soilik eragindako edo erakarritako bidaien banaketa (barruko mugimendurik gabe) garraio moduen arabera

Garraibide		Sortutako joan-etorriak (1)	Ekarritako joan-etorriak (2)	Guztira	%
Motorizatu gabea	Oinez	4.004	3.819	7.823	3,6
	Bizikleta	666	850	1.516	0,7
Guztira motorizatu gabeak		4.669	4.669	9.338	4,2
Motorizatua	Autoa	64.823	69.615	134.438	61,1
	Motozikleta	1.170	1.170	2.339	1,1
	Errepidezko garraio kolektiboa (3)	20.432	21.098	41.530	18,9
	Trenbidea	9.725	12.538	22.263	10,1
Guztira motorizatuak		96.150	104.420	200.570	91,2
Multimodala		4.170	5.792	9.962	4,5
Guztira		104.989	114.881	219.871	100

- (1) Sortutako desplazamenduak: Vitoria-Gasteiz sorburu eta kanpoan helburua duten joan-etorriak.
- (2) Ekarritako desplazamenduak: Sorburua kanpoan eta helburua Vitoria-Gasteizen duten joan-etorriak.
- (3) Errepidezko garraio kolektiboak bere barnean jasotzen ditu lineak kanpoko autobusetan eginiko garraioak, eta baita ere autobus urbanoetan eta herrien artekoetan.

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Irudia 52. Donostiako barne joan-etorrien banaketa garraibidearen arabera



Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

2.7.4 Helmuga hiru hiriburuetan duten joan-etorriak

Hiru hiriburuak pisu esanguratsua hartzen dute EAEko barne mugikortasunean. Guztira 2.702.021 joan-etorrien jatorria edota helmuga gisa eratzten dira, orotatik % 40,3ko ordezkari izanik. Hiru hiriburuetatik Bilbok erakusten du joan-etorriak sortzeko eta erakartzeko gaitasunik handiena, hiru hiriburuetak mugimenduaren % 40,4 bilduz, aldiz, Vitoria-Gasteizek (% 34,9) eta Donostiak (% 24,7) non portzentaje baxuena eskuratzen duen.

Taula 50. Helmuga hiru hiriburuetarara duten joan-etorrien banaketa, barne joan-etorriak kontuan hartuz

Jatorrizko eskualdea		Vitoria - Gasteiz	Bilbo	Donostia - San Sebastián	Guztira	
EAE	Araba	Arabako Ibarrak	3.360	-	201	3.561
		Arabako Lautada	12.387	-	-	12.387
		Vitoria-Gasteiz	880.435	5.511	1.459	887.405
		Arabako Mendialdea	1.680	-	-	1.680
		Errioxa Arabarra	2.462	54	-	2.515
		Gorbeiak Inguruak	7.885	101	45	8.031
		Kantauri Arabarra	3.685	5.719	299	9.704
	Guztira Araba	911.895	11.384	2.004	925.283	
	Bizkaia	Arratia-Nerbioi	1.137	5.436	-	6.573
		Bilbo Handia	6.142	188.501	1.030	195.673
		Bilbo	5.919	824.302	2.887	833.108
		Durungaldea	900	13.844	274	15.018
		Enkartzioak	-	8.506	-	8.506
		Gernika-Bermeo	254	8.397	-	8.651
		Markina-Ondarroa	207	2.110	330	2.648
		Plentzia-Mungia	235	17.300	-	17.535
	Guztira Bizkaia	14.795	1.068.397	4.521	1.087.712	
	Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	1.164	226	13.923	15.313
		Deba Beherea	896	2.412	4.337	7.644
		Deba Garaia	5.053	373	1.021	6.448
		Donostialdea	1.034	1.114	60.575	62.723
Donostia - San Sebastián		986	2.703	551.314	555.004	
Goierri		651	340	4.610	5.601	
Tolosaldea		200	-	9.904	10.104	
Urola-Kostaldea		278	1.965	10.200	12.443	
Guztira Gipuzkoa	10.263	9.133	655.885	675.281		
Guztira EAE	936.953	1.088.914	662.410	2.688.277		
Kanpokoa	5.349	3.786	4.609	13.744		
Guztira	942.302	1.092.699	667.019	2.702.021		

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Taula 51. Helmuga hiru hiriburuetara duten joan-etorrien banaketa, barne joan-etorriak kontuan hartuz. (%)

Jatorrizko eskualdea		Vitoria - Gasteiz	Bilbo	Donostia - San Sebastián	Guztira	
EAE	Araba	Arabako Ibarrek	0,4	-	-	0,1
		Arabako Lautada	1,3	-	-	0,5
		Vitoria-Gasteiz	93,4	0,5	0,2	32,8
		Arabako Mendialdea	0,2	-	-	0,1
		Errioxa Arabarra	0,3	-	-	0,1
		Gorbeiak Inguruak	0,8	-	-	0,3
		Kantauri Arabarra	0,4	0,5	-	0,4
	Guztira Araba	96,8	1,0	0,3	34,2	
	Bizkaia	Arratia-Nerbioi	0,1	0,5	-	0,2
		Bilbo Handia	0,7	17,3	0,2	7,2
		Bilbo	0,6	75,4	0,4	30,8
		Durangaldea	0,1	1,3	-	0,6
		Enkartzazioak	-	0,8	-	0,3
		Gernika-Bermeo	-	0,8	-	0,3
		Markina-Ondarroa	-	0,2	-	0,1
	Plentzia-Mungia	-	1,6	-	0,6	
	Guztira Bizkaia	1,6	97,8	0,7	40,3	
	Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	0,1	-	2,1	0,6
		Deba Beherea	0,1	0,2	0,7	0,3
		Deba Garaia	0,5	-	0,2	0,2
		Donostialdea	0,1	0,1	9,1	2,3
		Donostia - San Sebastián	0,1	0,2	82,7	20,5
		Goierrri	0,1	-	0,7	0,2
		Tolosaldea	-	-	1,5	0,4
	Urola-Kostaldea	-	0,2	1,5	0,5	
	Guztira Gipuzkoa	1,1	0,8	98,3	25,0	
	Guztira EAE	99,4	99,7	99,3	99,5	
Kanpokoa	0,6	0,3	0,7	0,5		
Guztira	100	100	100	100		

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Hiru kasuetan autoa da EAEko egoiliarrek hiru hiriburuetara sartzeko gehien erabiltzen duten garraiobidea, nahiz eta hiri bakoitzean ezberdintasun nabarmenak pairatzen diren.

2.7.4.1 Vitoria - Gasteiz

Vitoria-Gasteizerako sarbide gehienek jatorria probintzi beraren baitan aurkitzen dute (31.460-% 50,8), batez ere, Arabako Lautadako eta Gorbeia inguruak eskualdeetako udalerrietan sortutakoek garrantzia handiagoa izanik. EAEko hiriburuetatik Vitoria-Gasteiz da beste euskal probintzietako jatorria duten joan-etorrien sarbidearen portzentaje altuena biltzen duena, hain zuzen % 40,5, arrazoi nagusienetakoa hiriak duen rol administratiboa izanik. Vitoria-Gasteizen sarbidea duten joan-etorrien % 23,9ak Bizkaian dute jatorria (14.795), Bilbo Handiko eskualdea izanik sortzaile nagusienetakoa. Gipuzkoaren kasuan, Vitoria-Gasteiz hiribururako sarbidea duten soilik % 16,6 joan-etorri biltzen ditu (10.263), Debagoiena inguruan sortutakoak garrantzia handiena eskuratuz. Azkenik, esan, Vitoria-Gasteiz hiriak erakartzen dituela EAE kanpotik datozen joan-etorrien zenbateko altuena, orotara 5.349, non hirian gertatzen diren sarbideen % 8,6 ordezkatzan duten.

Kanpotik Vitoria-Gasteizera sartzeko gehien erabiltzen den garraiobidea autoa da joan-etorrien % 84,4 bilduz, portzentaje hau euskal hiriburuetatik altuena izanik.

Taula 52. Kanpoaldetik Vitoria - Gasteizerako sarbideak garraiobide motaren arabera

	Lurralde Historikoa	Eskualdea	Motorizatu gabea	Autoa (2)	Lineaz kanpoko autobusa	Urbanoa eta herriarteko autobusa (3)	Ferroviario (4)	Multimodala	Guztira	
EAE	Araba	Arabako Ibarrek	-	3.123	86	129	-	22	3.360	
		Arabako Lautada	1.242	10.465	472	56	-	151	12.387	
		Arabako Mendialdea	432	1.156	13	31	-	48	1.680	
		Errioxa Arabarra	-	2.434	-	-	-	27	2.462	
		Gorbeiak Inguruak	-	7.332	316	18	-	220	7.885	
		Kantauri Arabarra	-	3.097	266	197	-	125	3.685	
	Guztira Araba			1.675	27.607	1.153	431	-	594	31.460
	Bizkaia	Arratia-Nerbioi	-	804	-	69	-	264	1.137	
		Bilbo Handia	-	4.062	-	833	-	1.247	6.142	
		Bilbo	-	5.261	278	379	-	-	5.919	
		Durangaldea	-	900	-	-	-	-	900	
		Gernika-Bermeo	-	254	-	-	-	-	254	
		Markina-Ondarroa	-	207	-	-	-	-	207	
		Plentzia-Mungia	-	-	-	-	-	235	235	
	Guztira Bizkaia			-	11.489	278	1.281	-	1.746	14.795
	Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	-	1.164	-	-	-	-	1.164	
		Deba Beherea	-	896	-	-	-	-	896	
		Deba Garaia	-	4.323	-	93	-	638	5.053	
		Donostialdea	-	624	-	410	-	-	1.034	
		Donostia - San Sebastián	-	808	52	126	-	-	986	
		Goierni	-	230	-	-	226	195	651	
		Tolosaldea	-	-	-	-	200	-	200	
		Urola-Kostaldea	-	278	-	-	-	-	278	
	Guztira Gipuzkoa			-	8.323	52	629	426	833	10.263
	Guztira EAE			1.675	47.418	1.484	2.341	426	3.173	56.518
Kanpoko			-	4.803	-	-	-	546	5.349	
Guztira			1.675	52.222	1.484	2.341	426	3.719	61.867	

(1) Autoa: autoa gidari moduan, bidaiari moduan eta taxia

(2) Autobus urbanoa eta hiriartekoa: autobús urbanoen eta hiriartekoen zerbitzu erregularretan eginiko joan-etorriak jasotzen ditu.

(3) Trena: Renfe, Renfe Métrica (FEVE), Tranbia eta Euskotren

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Taula 53. Kanpoaldetik Vitoria - Gasteizerako sarbideak garraiobide motaren arabera. (%).

	Lurralde Historikoa	Eskualdea	Motorizatu gabea	Autoa (2)	Lineaz kanpoko autobusa	Urbanoa eta herriarteko autobusa (3)	Ferrovioario (4)	Multi modala	Guztira	
EAE	Araba	Arabako Ibarrek	-	92,9	2,5	3,8	-	0,7	100	
		Arabako Lautada	10,0	84,5	3,8	0,5	-	1,2	100	
		Arabako Mendialdea	25,7	68,8	0,8	1,9	-	2,8	100	
		Errioxa Arabarra	-	98,9	-	-	-	1,1	100	
		Gorbeiak Inguruak	-	93,0	4,0	0,2	-	2,8	100	
		Kantauri Arabarra	-	84,0	7,2	5,3	-	3,4	100	
	Guztira Araba			5,3	87,8	3,7	1,4	-	1,9	100
	Bizkaia	Arratia-Nerbioi	-	70,7	-	6,1	-	23,2	100	
		Bilbo Handia	-	66,1	-	13,6	-	20,3	100	
		Bilbo	-	88,9	4,7	6,4	-	-	100	
		Durungaldea	-	100,0	-	-	-	-	100	
		Gernika-Bermeo	-	100,0	-	-	-	-	100	
		Markina-Ondarroa	-	100,0	-	-	-	-	100	
		Plentzia-Mungia	-	-	-	-	-	100,0	100	
	Guztira Bizkaia			-	77,7	1,9	8,7	-	11,8	100
	Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	-	100,0	-	-	-	-	100	
		Deba Beherea	-	100,0	-	-	-	-	100	
		Deba Garaia	-	85,5	-	1,8	-	12,6	100	
		Donostialdea	-	60,3	-	39,7	-	-	100	
		Donostia - San Sebastián	-	81,9	5,3	12,8	-	-	100	
		Goierrri	-	35,3	-	-	34,7	30,0	100	
		Tolosaldea	-	-	-	-	100,0	-	100	
		Urola-Kostaldea	-	100,0	-	-	-	-	100	
	Guztira Gipuzkoa			-	81,1	0,5	6,1	4,2	8,1	100
	Guztira EAE			3,0	83,9	2,6	4,1	0,8	5,6	100
	Kanpoko			-	89,8	-	-	-	10,2	100
	Guztira			2,7	84,4	2,4	3,8	0,7	6,0	100

(1) Autoa: autoa gidari moduan, bidaiari moduan eta taxia

(2) Autobus urbanoa eta hiriartekoa: autobús urbanoen eta hiriartekoen zerbitzu erregularretan eginiko joan-etorriak jasotzen ditu.

(3) Trena: Renfe, Renfe Métrica (FEVE), Tranbia eta Euskotren

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

2.7.4.2 Bilbo

Bilbon, kanpoaldetik hiriko sarbideetarako fluxuen gehiengoa probintzia bertatik etorritakoa da (% 90,7 - 244.094) eta batez ere, Bilbo Handiko eskualdetik 188.501 joan-etorri, guztiaren %77,2. EAeko gainontzeko Lurralde Historikoei dagokienez, Arabak Bilborako sarbiderako 11.384 joan-etorri sortzen ditu non orotatik % 4,2 ordezkutzen duen eta jatorria kasu gehienetan Vitoria-Gasteizen eta Kantauri Arabarrean kokatzen den; bien bitartean, 9.133 joan-etorri gipuzkoar lurraldeetatik datoz, % 3,4, eta ekarpen handienak Donostiak egiten ditu, Deba Behea delarik bigarrena.

Gainontzeko hiriburuetan lez, EAetik Bilbora erakarritako joan-etorrien gehiengoa autoz egiten da (% 54,7), nahiz eta, Bizkaiko hiriburuak hiru kasuetatik portzentaje baxuenak eskuratzen dituen. Gainera, oso esanguratsua da hiribururako sarbideetara trenbidezko joan-etorriek lortutako barneratze kuota, % 28,4 kokatuz eta 76.390 joan-etorri bilduz.

Taula 54. Kanpoaldetik Bilborako sarbideak garraiobide motaren arabera

	Jatorria	Eskualdea	Motorizatu gabea	Autoa (1)	Motozikleta	Lineaz kanpoko autobusa	Urbanoa eta herriarteko autobusa (2)	Metroa	Gainontzeko trenak (3)	Multimodala	Guztira	
EAE	Araba	Kantauri Arabarra	-	4.071	-	-	-	-	1.376	272	5.719	
		Gorbeia mendiguruak	-	78	-	-	23	-	-	-	101	
		Vitoria-Gasteiz	-	4.538	-	278	695	-	-	-	5.511	
		Errioxa Arabarra	-	-	-	-	-	-	-	-	54	54
	Guztira Araba			-	8.687	-	278	718	-	1.376	326	11.384
	Bizkaia	Arratia-Nerbioi	-	4.297	-	-	157	-	466	517	5.436	
		Bilbo Handia	4.038	89.734	2.768	4.057	13.045	61.274	9.316	4.269	188.501	
		Durandaldea	-	10.858	-	-	2.232	-	208	546	13.844	
		Enkarterri	324	5.495	378	-	486	-	973	850	8.506	
		Gernika-Bermeo	-	4.454	-	632	1.998	-	223	1.091	8.397	
		Markina-Ondarroa	-	1.931	-	-	179	-	-	-	2.110	
		Plentzia-Mungia	-	10.802	-	-	2.734	2.555	-	1.209	17.300	
	Guztira Bizkaia			4.361	127.571	3.146	4.689	20.831	63.829	11.185	8.482	244.094
	Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	-	-	-	-	226	-	-	-	226	
		Debabarena	-	2.011	-	-	-	-	-	400	2.412	
		Debagoiena	-	176	-	-	-	-	-	197	373	
		Donostialdea	-	1.033	-	-	81	-	-	-	1.114	
		Donostia-San Sebastián	-	2.112	-	-	134	-	-	457	2.703	
		Goierra	-	340	-	-	-	-	-	-	340	
		Urola Kosta	-	1.354	-	-	409	-	-	202	1.965	
	Guztira Gipuzkoa			-	7.026	-	0	849	-	-	1.257	9.133
	Guztira EAE			4.361	143.284	3.146	4.967	22.398	63.829	12.561	10.064	264.611
	Kanpoko			-	4.077	-	-	267	-	-	264	4.609
Guztira			4.361	147.361	3.146	4.967	22.666	63.829	12.561	10.328	269.220	

(1) Autoa: autoa gidari moduan, bidaiari moduan eta taxiak

(2) Autobus urbanoa eta hiriartekoa: autobús urbanoen eta hiriartekoen zerbitzu erregularretan eginiko joan-etorriak jasotzen ditu.

(3) Gainontzeko trena: Renfe, Renfe Métrica (FEVE), Tranbia eta Euskotren

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Taula 55. Kanpoaldetik Bilborako sarbideak garraiobide motaren arabera. (%).

Jatorria	Eskualdea	Motorizatu gabea	Autoa (1)	Motozikleta	Lineaz kanpoko autobusa	Urbanoa eta herriarteko autobusa (2)	Metroa	Gainontzeko trenak (3)	Multimodala	Guztira	
EAE	Araba	Kantauri Arabarra	-	71,2	-	-	-	24,1	4,8	100	
		Gorbeia mendiguruak	-	77,4	-	-	22,6	-	-	100	
		Vitoria-Gasteiz	-	82,3	-	5,1	12,6	-	-	100	
		Errioxa Arabarra	-	-	-	-	-	-	-	100,0	100
	Guztira Araba		-	76,3	-	2,4	6,3	-	12,1	2,9	100
	Bizkaia	Arratia-Nerbioi	-	79,0	-	-	2,9	-	8,6	9,5	100
		Bilbo Handia	2,1	47,6	1,5	2,2	6,9	32,5	4,9	2,3	100
		Durangaldea	-	78,4	-	-	16,1	-	1,5	3,9	100
		Enkarterri	3,8	64,6	4,4	-	5,7	-	11,4	10,0	100
		Gernika-Bermeo	-	53,0	-	7,5	23,8	-	2,7	13,0	100
		Markina-Ondarroa	-	91,5	-	-	8,5	-	-	-	100
		Plentzia-Mungia	-	62,4	-	-	15,8	14,8	-	7,0	100
	Guztira Bizkaia		1,8	52,3	1,3	1,9	8,5	26,1	4,6	3,5	100
	Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	-	-	-	-	100,0	-	-	-	100
		Debarrena	-	83,4	-	-	-	-	-	16,6	100
		Debagoiena	-	47,2	-	-	-	-	-	52,8	100
		Donostialdea	-	92,8	-	-	7,2	-	-	-	100
		Donostia-San Sebastián	-	78,1	-	-	5,0	-	-	16,9	100
		Goierri	-	100,0	-	-	-	-	-	-	100
		Urola Kosta	-	68,9	-	-	20,8	-	-	10,3	100
	Guztira Gipuzkoa		-	76,9	-	-	9,3	-	-	13,8	100
	Guztira EAE		1,6	54,1	1,2	1,9	8,5	24,1	4,7	3,8	100
	Kanpokoak		-	88,5	-	-	5,8	-	-	5,7	100
Guztira		1,6	54,7	1,2	1,8	8,4	23,7	4,7	3,8	100	

(1) Autoa: autoa gidari moduan, bidaiari moduan eta taxia

(2) Autobus urbanoa eta hiriartekoa: autobús urbanoen eta hiriartekoen zerbitzu erregularretan eginiko joan-etorriak jasotzen ditu.

(3) Gainontzeko trena: Renfe, Renfe Métrica (FEVE), Tranbia eta Euskotren

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

2.7.4.3 Donostia – San Sebastián

Donostian, kanpotik hirirako sarbideetan egunero 114.881 joan-etorrietako fluxua biltzen da. Hauetatik % 91,0 (104.571) probintzia beretik sortuak dira, batez ere, Donostialdea (% 57,9) eta Bidasoa Behera (% 13,3) eskualdeen eremuetatik datozenak. Gainontzeko Lurralde Historikoei dagokienez, Bizkaia da joan-etorri gehienak sortzen dituen bigarren eremua (4.521 - % 3,9) non horietatik bi herenak Bilbon dute jatorria, eta hirugarrenik, Araban sortutakoek % 1,7eko portzentajea eskuratzen dute.

Donostia hiribururako sarbideen fluxuari irtenbidea emateko gehien erabiltzen den garraioideari dagokionez, autoak eskuratzen du barneratze kuota altuena % 60,6ko portzentajeetara iritsiz, errepidezko garraio kolektiboak jarraituz (% 18,4), zeinak hiru hiriburuetako portzentaje altuenak eskuratzen dituen.

Taula 56. Kanpoaldetik Donostiarako sarbideak garraioide motaren arabera

	Jatorria	Eskualdea	Motorizatu gabea	Autoa (1)	Motozikleta	Lineaz kanpoko autobusa	Urbanoa eta herriarteko autobusa (2)	Trenbidea (3)	Multimodala	Guztira	
EAE	Araba	Kantauri Arabarra	-	299	-	-	-	-	-	299	
		Gorbeia mendiguruak	-	-	-	-	-	-	45	45	
		Vitoria-Gasteiz	-	1.169	-	52	-	-	-	237	1.459
		Arabako Lautada	-	201	-	-	-	-	-	-	201
	Guztira Araba			-	1.670	-	52	-	-	282	2.004
	Bizkaia	Bilbo Handia	-	651	-	-	-	112	-	267	1.030
		Bilbo	-	2.453	-	-	-	-	246	188	2.887
		Durandaldea	-	-	-	-	-	-	274	-	274
		Markina-Ondarroa	-	330	-	-	-	-	-	-	330
	Guztira Bizkaia			-	3.434	-	-	112	520	455	4.521
	Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	387	7.702	-	177	2.102	2.426	1.129	13.923	
		Debarrena	-	2.885	-	108	1.114	-	230	4.337	
		Debagoiena	-	833	-	-	188	-	-	1.021	
		Donostialdea	3.432	35.057	1.170	1.394	11.913	6.556	1.053	60.575	
		Goierri	-	3.699	-	203	-	204	504	4.610	
		Tolosaldea	645	6.543	-	-	1.278	1.212	225	9.904	
		Urola Kosta	-	5.148	-	-	2.456	1.620	977	10.200	
	Guztira Gipuzkoa			4.464	61.866	1.170	1.883	19.051	12.018	4.119	104.571
	Guztira EAE			4.464	66.970	1.170	1.935	19.163	12.538	4.856	111.096
	Kanpokoak			205	2.645	-	-	-	-	936	3.786
	Guztira			4.669	69.615	1.170	1.935	19.163	12.538	5.792	114.881

(1) Autoa: autoa gidari moduan, bidaiari moduan eta taxa

(2) Autobus urbanoa eta hiriartekoa: autobús urbanoen eta hiriartekoen zerbitzu erregularretan eginiko joan-etorriak jasotzen ditu.

(3) Gainontzeko trenak: Renfe, Renfe Métrica (FEVE), Tranbia eta Euskotren

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Taula 57. Kanpoaldetik Donostiarako sarbideak garraibide motaren arabera. (%)

	Jatorria	Eskualdea	Motorizatu gabea	Autoa (1)	Motozikleta	Lineaz kanpoko autobusa	Urbanoa eta herriarteko autobusa (2)	Trenbidea (3)	Multimodala	Guztira	
EAE	Araba	Kantauri Arabarra	-	100,0	-	-	-	-	-	100	
		Gorbeia inguruak	-	-	-	-	-	-	100,0	100	
		Vitoria-Gasteiz	-	80,2	-	3,6	-	-	16,2	100	
		Arabako Lautada	-	100,0	-	-	-	-	-	100	
	Guztira Araba			-	83,3	-	2,6	-	14,1	100	
	Bizkaia	Bilbo Handia	-	63,2	-	-	10,9	-	25,9	100	
		Bilbo	-	85,0	-	-	-	8,5	6,5	100	
		Durungaldea	-	-	-	-	-	100,0	-	100	
		Markina-Ondarroa	-	100,0	-	-	-	-	-	100	
	Guztira Bizkaia			-	76,0	-	2,5	11,5	10,1	100	
	Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	2,8	55,3	-	1,3	15,1	17,4	8,1	100	
		Debabarrena	-	66,5	-	2,5	25,7	-	5,3	100	
		Debagoiena	-	81,6	-	-	18,4	-	-	100	
		Donostialdea	5,7	57,9	1,9	2,3	19,7	10,8	1,7	100	
		Goiherri	-	80,2	-	4,4	-	4,4	10,9	100	
		Tolosaldea	6,5	66,1	-	-	12,9	12,2	2,3	100	
		Urola Kosta	-	50,5	-	-	24,1	15,9	9,6	100	
	Guztira Gipuzkoa			4,3	59,2	1,1	1,8	18,2	11,5	3,9	100
	Guztira EAE			4,0	60,3	1,1	1,7	17,2	11,3	4,4	100
	Kanpokoak			5,4	69,9	-	-	-	24,7	100	
	Guztira			4,1	60,6	1,0	1,7	16,7	10,9	5,0	100

(1) Autoa: autoa gidari moduan, bidaiari moduan eta taxia

(2) Autobus urbanoa eta hiriartekoa: autobús urbanoen eta hiriartekoen zerbitzu erregularretan eginiko joan-etorriak jasotzen ditu.

(3) Gainontzeko trenak: Renfe, Renfe Métrica (FEVE), Tranbia eta Euskotren


Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

B.3 Bilakaera 2003-2016

Atal honen helburua da EAEn azken urteetan mugikortasun-ereduetan gertatutako aldaketei buruzko ikuspegi orokorra lortzea, eta, horretarako, beste urte batzuetan egindako inkesta-prozesuetan lortutako datuak erabili ditugu. 2003ko datuak 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunari buruzko Azterketan egindako konparaziotik atera ditugu.

Hiru lurralde historikoetan, joan-etorrien kopurua handitu egin da, aurreko denboraldiarekin alderatuta; Araban, hazkundera bereziki aipagarria izan da.


Irudia 53. Joan-etorri guztien bizilekuen araberako Lurralde Historikoaren bilakaera



Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAeko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016

2016. urtean, EAeko biztanle bakoitzak 3,33 joan-etorri egin zituen egunero, batez beste; hain zuzen, lau urtean, joan etorrien kopurua % 9,2 handitu zen urte hartan. Hiru lurralde historikoek ez dute bilakaera bera izan: Gipuzkoan eta Bizkaian, biztanleen mugikortasunaren hazkundera neurritzkoa izan zen, eta, Araban, berriz, oso handia.


Irudia 54. Joan-etorrien batez bestekoaren bilakaera, biztanle bakoitzeko



Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Sexuaren arabera, gizonen mugikortasuna nabarmen handitu da. % 14 handitu da; hain zuzen, gizon bakoitzak 3,44 joan-etorri egin zituen, batez beste, 2016an. Emakumeen kasuan, hazkundera txikiagoa izan da (% 4,9); batez beste, emakume bakoitzak 3,23 joan-etorri egin zituen.


Irudia 55. Joan-etorrien bilakaera sexuaren arabera



Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Oro har, garraiobide multimodala ez dauka garrantzi handirik hiru Lurralde Historikoetan. Bilakaera desberdina izan du haietako bakoitzean.


Irudia 56. Joan-etorri intermodalen ehunekoaren bilakaera



Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Automobilak garrantzi handia du mugikortasun-ereduetan, oraindik ere, baina haren erabilera apur bat txikitu da, aztertutako aurreko denboraldiarekin alderatuta. Nabarmendu behar da automobilaren erabilera bigarren denboraldiz jarraian txikitzen dela; oinezko joan-etorriak gora egin dute eta garraio publikoak %12an mantendu dira denbora tarte honetan.

Irudia 57. Banaketa modalaren bilakaera



- (1) Automobila esatean hau sartzen da: Gidariaren autoa, bidaiariaren autoa eta taxiak
- (2) Garraio publikoa: Bidaiariak errepide bidez garraiatzeko zerbitzu erregularren lineen bitartez egiten diren desplazamenduak sartzen dira, bai hiri barrukoak bai hiri artekoak, eta trenes egindakoak ere bai (metroa, Renfe, Renfe metrikoa -FEVE-, Euskotren eta tranbia
- (3) Beste batzuk esatean hauek sartzen dira: Bizikleta, motorra, eskatu ahalako autobusa, hegazkian, multimodala eta beste batzuk.

Oharra: Aldaketa bat egin da banaketa modalaren kalkuluan 2007ko eta 2011ko edizioekiki, izan ere, taxiak beste batzuen atalean sartuta zegoen eta grafiko honetan automobilaren barruan zenbatzen da.
 Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

2011-2016 denboraldian, EAeko mugikortasuna % 8,1 handitu da; 2016an, 505.292 joan-etorri gehiago egin ziren 2011n baino. Termino absolutuetan, oinez egiten diren joan-etorriak dira gehien ugartu direnak (377.075). Motorra eta bizikleta hazkunderik nabarmenenak izan zituzten garraiobideak izan ziren; hurrenez hurren, % 36,5eko eta % 26,1eko hazkunderak izan zituzten; hurrengo postuetan, autoen bidaiaria (% 25,2) eta hiriarteko autobusa (% 17,6) egon ziren. Aitzitik, beste modu batzuen bidez eta autobus-zerbitzu pribatua erabiliz egindako joan-etorrien kopuruak izan zuen beherakadarik handiena.

Motorrik gabeko garraiobideen erabilera % 14,1 handitu zen 2011ko datuekin alderatuta; hain zuzen, termino absolutuetan, 407.594 joan-etorri gehiago egin ziren egunero modu horiek erabiliz. Termino absolutuetan, bereziki aipagarria da oinez egindako joan-etorrien gorakada. Portzentajezko terminoetan, bizikletaren erabilera % 26,1 handitu da. Hazkunderik handienetako bat da hori; hain zuzen, egunero, 2011n baino 30.518 joan-etorri gehiago egin ziren 2016an.

2016an, beste 141.408 joan-etorri egin ziren automobileraz; hau da, % 6,4eko hazkundera izan zen. Izan ere, autoen bidaiari gisa egiten diren joan-etorriak gehitu egin dira; % 25,2ko hazkundera izan du lekualdatzeko modu horrek, eta horrek esan nahi du termino absolutuetan 2016an, 2011n baino 88.248 joan-etorri gehiago egin zirela. Bestalde, autoen gidari gisa egiten diren joan-etorrien kopuruak bere horretan jarraitu du, eta taxiaren erabilera apur bat txikitu da: % 7; hau da, 2016an 580 joan-etorri gutxiago egin ziren 2011n baino.

2016an, autobusaren erabilera pixka bat txikitu da, % 3,5, hain zuzen. 2011n baino 18.121 joan-etorri gutxiago egin ziren 2016an. Bereziki esanguratsua da autobus-zerbitzu pribatuaren erabileraren beherakada (% 32,5 gutxiago); termino absolutuetan, 2016an 2011n baino 48.094 joan-etorri gutxiago egin ziren garraiobide hura erabiliz. Hiriarteko autobusaren erabilerak, berriz, gora egin du: 2011n baino 24.533 joan-etorri gehiago (% 17,6ko hazkundera).


Trenbideari dagokionez, aipatzekoa da joan-etorriak % 4,4 gutxitu direla; horrek esan nahi du 2016an, termino absolutuetan, egunero 17.612 joan-etorri gutxiago egin zirela garraiobide horren bidez. Dena den, beherakada hori Renferi dagokio gehienbat; % 26,3ko beherakada izan du (14.968 bidaia gutxiago). Metroak ere % 2,8ko beherakada izan du; hain zuzen, 2016an, 7.651 joan-etorri gutxiago egin ziren egunero. Bestalde, tranbia eta Euskotreneko trenak erabiliz egindako joan-etorrien kopurua handitu zen: hurrenez hurren, % 7,8 (2.343 joan-etorriak) eta % 6,8% (2.767).

Taula 58. EAEko mugikortasunaren bilakaera 2011-2016 aldian, garraio moduen arabera

	2011	2016	Aldaketa (%)
Oinez	2.777.979	3.155.054	13,6
Bizikleta	116.938	147.456	26,1
Motorizatu gabea	2.894.917	3.302.511	14,1
Auto gidaria	1.861.002	1.914.742	2,9
Auto bidaiaria	350.379	438.627	25,2
Taxi	8.285	7.705	-7,0
Autoa	2.219.667	2.361.075	6,4
Motozikleta	58.255	79.491	36,5
Hiri autobusa	235.431	240.871	2,3
Hiriarteko autobusa	139.407	163.940	17,6
Lineaz kanpoko autobusa	147.804	99.710	-32,5
Autobusa	522.642	504.521	-3,5
Metroa	273.898	266.247	-2,8
Euskotren	40.558	43.325	6,8
Renfe	56.938	41.970	-26,3
Renfe Métrica (FEVE)	2.900	2.796	-3,6
Tranbia	29.972	32.315	7,8
Trenbidea	404.266	386.65	-4,4
Hegazkina	3.316	1.187	-64,2
Multimodala	75.507	59.417	-21,3
Bestelakoak	22.003	11.009	-50,0
Guztira	6.200.572	6.705.864	8,1

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Irudia 58. Autoaren erabileraren bilakaera Lurralde Historiko bakoitzeko barne-mugikortasunean⁶



Oharra: Sartze kuota kalkuluan aldaketa bat egin da, 2007ko eta 2011ko edizioekiko, izan ere, edizio honetan taxa sartu da eta aurrekoetan ez zen sartu.


Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Autoaren erabilera 2011n ematen zenaren oso antzekoa da, EAE mailan hazkunde eman delarik, nahiz eta lurraldeen araberako garapen ezberdina izan.

2016an, garraio publikoaren (hiriko autobusa, hiriarteko autobusa, trenbidea, metroa eta tranbia) erabilera apur bat txikitu zen probintzia bakoitzaren barruan egin ziren joan-etorriei dagokienez; EAEn, % 12,7koa da kuota hori. Hiru lurraldeetan gertatu zen beherakada hori, batik bat Araban eta Bizkaian; lurralde historiko horietan, beherakada nabarmena izan zen. Araban, garraio publikoak ez ziren gai izan sortutako mugikortasun-fluxu berriak erakartzeko, eta, horren ondorioz, garraio publikoaren erabilera behera egin zuen. Hain zuzen ere, 2011n, Arabako lurraldearen barruan, 71.396 joan-etorri egiten ziren egunero garraio publikoetan, eta, 2016an, % 4,7 handitu zen kopuru hori (74.725 joan-etorri egunero). Hala ere, joan-etorriak, guztira, % 30,8 gehitu ziren, eta, ondorioz, horrek esan nahi du garraio publikoek kuota galdu dutela. Bizkaian, antzekoa gertatu zen: Lurralde Historikoaren barruan egin ziren joan-etorrien kopuruak bere horretan jarraitu zuen (489.000, gutxi gorabehera), eta barne-mugikortasuna, guztira, % 4,5 handitu zen.

⁶ EAEko datu orokorrari dagokionez, guztizko datuek probintzien arteko joan-etorrien batura adierazten dute. EAEtik kanpora eta probintzien artean egindako joan-etorriak ez dira datu horietan sartzen.

Irudia 59. Garraio publikoaren erabilaren bilakaera Lurralde Historiko bakoitzeko barne-mugikortasunean⁷




Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Oinez egiten diren joan-etorriak dira ugariak hiru lurralde historikoetan, eta garraio publikoaren erabilera nabarmen txikitu da. Orobat, bizikletaren erabilera ere aipatzekoa da, batik bat Araban eta, apur bat gutxiago, Gipuzkoan. Bizkaia, berriz, oso urrun dago beste bi lurralde historikoetan bizikletak duen erabilera-mailetatik.

⁷ EAEko datu orokorrari dagokionez, guztizko datuek probintzien barruko joan-etorrien batura adierazten dute. EAEtik kanpora eta probintzien artean egindako joan-etorriak ez dira datu horietan sartzen. 2011ko datuetan, trenbidez eta errepede bidez egindako joan-etorriez gain, modu multimodalak ere sartu dira. 2007ko inkestan, modu hori ez zen zehaztu.


Irudia 60. Garraiobideen bilakaera Lurralde Historiko bakoitzeko barne-mugikortasunean (2011-2016)



Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Oraindik ere, 2016an egindako ia joan-etorri guztiak (% 96) probintzia barrukoak izan ziren. Hala ere, 2016an, joera aldatu egin zen: ordura arte, joan-etorri horien kopurua urtero txikitzen zen, eta, 2016an, ordea, apur bat handitu zen.


Irudia 61. Barne-mugikortasunaren bilakaera, Lurralde Historikoaren arabera



Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

Hiriburuetan jatorria eta helmuga duten joan-etorriei dagokienez, hiriburu bakoitzak bilakaera desberdina izan zuen. Gasteizen zein Donostian, joan-etorri horien kopuruak gora egin zuen; izan ere, Arabako hiriburuaren kasuan, ia % 97 izan ziren. Donostian, gertatutako hazkundearen ondorioz, % 85 izan ziren. Bilbon, berriz, joan-etorri horien ehunekoa txikiagoa da.

Irudia 62. Barne-mugikortasunaren bilakaera, hiriburuaren arabera




Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

2016an, hiru hiriburu bakoitzeko joan-etorriei dagokienez, garraiobide publikoen erabilera txikitu egin zen, 2011ko datuekin alderatuta. Beherakada horrek adierazten du Bilbon eta Donostian 2007az geroztik zegoen joera bere horretan jarraitzen zuela. Gasteizen, berriz, 2011ko datuak positiboak izan ziren, tranbia martxan jarri eta, horren ondorioz, garraio publikoa berrantolatu baitzen; eta, 2011-2016 denboraldian beherakada bat gertatu bazen ere,

garraibide publikoen kuota handiagoa da aldaketa horiek egin aurretik zeukanarekin alderatuta.

Irudia 63. Garraio publikoaren bilakaera hiriburuetako barne-mugikortasunean⁸



Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta, 2016.

⁸ Guztizko zenbatekoan, hiru hiriburuen barruan garraio publikoa erabiliz egindako joan-etorriak sartzen dira. Garraibide publikoak hauek dira: hiriko autobusa, tranbia, Renfe, Renfe Métrica (FEVE), Euskotren eta metroa.

B.4 Ondorioak

Orain arte azaldutako emaitzetatik ateratzen dugun lehen ondorioa honako hau da: pertsonen mugikortasunak handitzen jarraitzen du. Izan ere, 2016an, milioi erdi joan-etorri baino gehiago detektatu ziren, 2011ko inkestako datuekin alderatuta; hau da, % 8,1 handitu zen joan-etorri horiek kopurua. Datu horrek berresten du mugikortasuna Mendebaldeko gizartearen erronka handietako bat dela; gizartea gero eta gehiago mugitzen da, eta denboraren eta lurraldearen ikuspuntutik, gero eta joan-etorri sakabanatuagoak egiten ditu; beraz, konponbide bideragarriak proposatu behar zaizkio. 2011-2016 denboraldian gertatutako gorakada 2003tik 2007ra bitartean izandakoaren antzekoa izan zen, eta 2007tik 2011ra bitartekoa halako bi. Joan-etorri berri horietako gehienak oinez egin ziren; horri dagokionez, hiriburuak nabarmentzen dira, eta, batik bat, Gasteiz. 2011ko egoerarekin alderatuz, beste erabilera batzuek ere gorakada izan zuten 2016an; bizikletak eta autoak, bidaiarien aldetik. Autoa gidari gisa erabiltzen dutenen kopuruak bere horretan iraun zuen. Halaber, asko txikitu zen autobusaren erabilera, oro har; batez ere, autobus-zerbitzu pribatuen erabilera txikitu zen, hiriarteko autobusarena pixka bat handitu arren. Neurri txikiago batean, trenbide-zerbitzuen erabilerak ere beherakada izan zuen, baina kontuan izan behar dugu tranbiaren erabilerak gora egin zuela.

Garraibideen banaketa –hots, garraibide bakoitzak biztanleriaren mugikortasun-ohituretan duen garrantzia– alderdirik interesgarrienetako bat da honelako azterketetan. Azpimarratu behar da orokorrean mugikortasunaren eskema ez zela asko aldatu ikuspegi horretatik. Dena den, nabarmentzekoa da oinez egin ziren joan-etorriekin lotutako joera bat egiaztatu dugula: hirugarren denboraldiz jarraian, joan-etorri horien kopurua handitu zen; joan-etorri guztien % 47 izan ziren, duela bost urte baino bi puntu baina gehiagoko hazkundera, alegia. Argi dago udal-esparrua egokiena dela motordun ibilgailurik gabe egiten diren joan-etorrietarako. Izan ere, joan-etorri horiek dira udalerrri barruko mugikortasunaren protagonistak. Alabaina, datuek gai garrantzitsu batzuk adierazten dituzte. Hain zuzen, udalerrri barruko joan-etorrien % 68,7 oinez edo bizikletaz egin ziren 2016an; horrek esan nahi du joan-etorri horien ehunekoa 1,3 puntu handitu zela, aztertutako aurreko denboraldiarekiko, eta azpimarratu behar da bi modu horien ehunekoa handitu zela. Hala ere, beste datu garrantzitsu batean jarri behar da arreta: udalerrri barruan, automobilez egiten diren joan-etorrien ehunekoa ere 3,6 puntu handitu da. Gainerako lurralde-esparru gehienetan, ez da halakorik gertatu; izan ere, 2016an, automobilaren erabilera-maila orokorra % 35,8tik % 35,2era. Identifikatutako joan-etorri gehienak udalerrri barruan egin zirela kontuan hartuta, argi dago zein den gaur egungo erronka nagusietako bat: ibilbide horietan automobilaren erabilera txikitzea. Horretarako, garraio publikoa balioetsi behar da, eta haren eskaintza handitu. Hala ere, beste neurri osagarri batzuk ere hartu behar dira beharbada. Azpimarratu behar da mugikortasun iraunkor bat lortzeko ahalegin gehienak udal-esparruan egin behar direla. Oinarrizko bi arrazoi daude: alde batetik, esparru horretan egiten dira joan-etorri gehien, (AEAko joan-etorrien % 67,7), eta errazagoa da han aukera bideragarriak ematea. Bai garraio kolektiboak bai motorrik gabeko garraioak sustatuz. Bestalde, eskualde beraren barruko joan-etorriak EAEko guztien % 20,5 suposatzen dutela azpimarratzen dugu. Hain zuzen, 2016an autoz egin ziren joan-etorrien % 38,7 udalerrian bertan hasi eta amaitu zen (eskualde barruan, ehuneko hori % 34,7koa da).

Lehenago adierazi dugunez, termino erlatiboetan, automobilaren (ibilgailu partikularra eta taxia) banaketa modalaren ehunekoa txikitu zen: % 35,8koa zen 2011n, eta % 35,2koa 2016an. Hala ere, termino absolutuetan, egokiagoa da datu horrek bere horretan irauten zuela esatea. Izan ere, automobil partikularrean gidari gisa edo taxiaren bidez egiten diren joan-etorrien kopurua ia 2011ko datu absolutuaren berdina izan zen; dena den, automobila gidari gisa erabili zutenen kopuruak gora egin zuen. Horrenbestez, ibilgailu kopuru berarekin, erabiltzaileen kopuru absolutua % 6,4 handitu zen.

Motorrik gabeko moduen erabilera ere handitu zen: % 49,2koa izan zen 2016an, eta % 46,7koa 2011n; hortaz, hazkunde nabarmena izan zuten modu horiek. Hala ere, inkestako datuek gai bereziki garrantzitsu bat ematen dute aditzera: garraio kolektiboaren errepide bidezkoen eta trenbideen erabilera-mailak behera egin zuen, bai termino erlatiboetan, bai termino absolutuetan. Beraz, lortutako datuen arabera, 2016an, eguneroko joan-etorri guztien % 13,3 egin zen garraio publikoan. 890.000 joan-etorri dira, eta, 2011n, berriz, 930.000 izan ziren (% 14,9). Garraio kolektiboaren soilik erreparatuz gero, ehuneko horiek % 11,8 eta % 12,6 dira, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hiriko zein hiriarteko garraioan, apur bat handitu zen joan-etorrien kopurua; autobus-zerbitzu pribatuak, berriz, joan-etorri asko galdu zituzten. Trenbidean ere, joan-etorrien kopuruak behera egin zuen, oro har. Dena den, trenbide-moduaren erabilerrari dagokionez, hiriko eta hiriarteko joan-etorriak datu desberdinak izan zituzten; hain zuzen, azken horietan gertatu ziren beherakadak handienak. Gainera, adierazi behar da garraio kolektiboaren beherakada hori batez besteko lanegun batean joan-etorri horien % 90 biltzen zuten bi esparruetan gertatu zela; hau da eskualdearen barruan eta udalerriaren barruan.

Joan-etorriak egiteko arrazoiei dagokienez, esan behar da ohikoak izan direla. Lana izan zen joan-etorrien arrazoi nagusia, baina haren garrantzi erlatiboa txikitu egin zen. Beste arrazoi batzuen ehunekoak gora egin zuten; esate baterako, aisia joan-etorrien % 26,3 eragin zuen, eta joan-etorri guztien % 20,2 gestio familiarak egiteko edo senideei laguntzeko egin zen. Horrenbestez, azpimarratu behar da lan-jarduerarekin eta ikasketekin lotutako joan-etorriak % 43,8ra jaitsi zirela, 2011n joan-etorri guztien % 49,6 izan zirela kontuan hartuta. Horrek erakusten du joan-etorri gehien arrazoiak pertsonalak direla; horrek, segurua asko, garraio kolektiboaren erabilera-ereduetan izango du eragina.

Bestalde, dokumentu honetan aipatu dugun inkestan, honelako ikerketetan behin eta berriz agertzen diren zenbait alderdi azaldu dira; besteak beste, gizonen eta emakumeen artean dauden alde handiak, garraio kolektibo mota guztien erabilerrari dagokionez. Beraz, berriro egiaztatu dugu gizonen motordun garraio kolektibo partikularretara jotzen zutela sarriago, eta emakumeek, berriz, gehiago erabiltzen zutela garraio publikoa. Izan ere, gizonen euren joan-etorrien % 8,2 egin zuten garraio kolektiboan; datu hori % 15,4koa izan zen emakumeen artean. 2011n, datu horiek % 9,2 eta % 15,6 izan ziren, hurrenez hurren. Beraz, emakumeek garraio kolektiboaren erabiltzaile gisa jarraitu zuten; gizonen, berriz, gutxiago erabiltzen zituzten garraio kolektibo horiek, eta, 2016an, are gutxiago.

Barruko joan-etorriak % 98,8 izan ziren; datu hori ez da inkesta batetik bestera aldatzen. Joan-etorri horiei dagokienez, tipologia (udalerritar barrukoak, eskualde barrukoak, lurralde barrukoak edo haien artekoak) ia berdina da urte batetik bestera; 2016an, joan-etorrien % 90

eskualde edo udalerrri barruan egin zen. Lehenago adierazi dugunez, udalerrietan landu behar dira mugikortasunaren kalitatea zein iraunkortasuna hobetzeko konponbideak.

Barruko joan-etorriei erreparatuta, lurralde historiko bakoitzak bere bilakaera du, aurreago orokorrean deskribatu dugunaren ondorioz. Hala ere, merezi du zenbait gai sakonago aztertzea. Araban, nabarmen handitu zen oinez egiten diren joan-etorrien kopurua; horrek, gainera, automobilaren erabilerak behera egitea eragin du. Gainera, bizikletaren erabilera ere handi samarra izan dela kontuan hartuz gero, ondorioztatuko dugu Araban garraibide iraunkorrek joan-etorri guztien % 61,9 bildu zutela; hiriburuko datuek eragin handia izan dute. Arabako Lautada eta haren erreferentzia argia, Gasteiz, alde batera utzita, Aiaraldea (Laudio, Amurrio eta beste udalerrri batzuk) da joan-etorri gehien dituen eskualdea.

Bizkaian, garraibide iraunkorrek joan-etorrien % 49 bildu zuten; Arabako datutik oso urrun, baina egoera apur bat hobetuz 2011koarekin alderatuta. Trenbideak protagonismo handiagoa izan zuen errepide bidezko garraio kolektiboak baino; izan ere, joan-etorrien bikoitza lortu zuen. Horren arrazoia trenbide-garraioaren eskaintza handia da. Bilbo Handitik kanpo, Durangaldea izan zen joan-etorri gehien izan zituen eskualdea.

Gipuzkoan ere, Bizkaian bezala, joan-etorri asko egin ziren garraibide iraunkorren bidez 2016an; ia % 48,9, hain zuzen. Gipuzkoan, eskualde bakoitzaren barruko joan-etorrien kopurua beste bi lurralde historikoetan baino handiagoa izan zen; batez ere, eskualde bakoitzean biztanleriaren eta harremanen egitura oso sendoa baita, eta, gainera, hiriburuaren garrantzi espezifiko txikiagoa baita. Hori dela eta, hiriburuaren eta haren eskualdearen barruko joan-etorrien pisua ez da Araban eta Bizkaian bezain handia.

Azken batean, adierazi beharra dago mugikortasun-eredu nagusiek euren horretan jarraitzen dutela eta, bestalde, motorrik gabeko garraibideen garrantzia handitzen ari dela. Hala ere, banaketa modalean garraio publikoaren garrantzia pixka bat txikitu izanak aztertu beharreko zerbait izan beharko luke. Garraio publikoaren erakarpen-datu historikoek aditzera ematen dutenaren arabera, garraibide horiek gero eta gutxiago erabiltzeko joera dago 2007tik hona. Gainera, 2003-2007 denboraldian, garraibide publikoen bidez egindako joan-etorriak gehitu egin ziren, baina joan-etorri guztiak baino gutxiago.

